

MEDIKUEN OPOSIZIOKO LEHENENGO ARIKETA (2019ko abenduaren 30eko 248 zenbakidun BAO n argitaratutako deialdia)

1. Estatuko hizkuntza ofiziala dela eta, zer dagokie espainiar guztiei?
 - a) Guztiek dute jakiteko eginbeharra eta eskubidea
 - b) Guztiek dute jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea
 - c) Guztiek dute erabiltzeko eginbeharra eta eskubidea
 - d) Guztiek dute erabiltzeko eginbeharra

2. Euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa da. Hauetatik zein da zuzena?
 - a) Hizkuntza ofiziala izango da Euskadin eta bertako biztanle guztiek dute jakiteko eta erabiltzeko eskubidea
 - b) Hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eginbeharra
 - c) Hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea
 - d) Bat ere ez da zuzena.

3. Kide anitzeko zein organok ditu Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-egitekoak?
 - a) Eusko Jurlaritzak
 - b) Eusko Legebiltzarrak
 - c) Lehendakariak
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

4. Zer printzipio izango dituzte Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanek?
 - a) Elkartasunari eutsiko zaio
 - b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloan Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatuko dira eta berarekin lankidetzan arituko dira
 - c) Euskadiko erakundeek autonomia izango dute zergen eta finantzen eremuan
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

5. Hauetatik zein da lurralde historietako foru-organoen eskumen eskusiboa?
 - a) Foru-organoen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua
 - b) Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultura-erakundeak sortu eta mantentzea
 - c) Lurralde Historikoaren lur-eremuak gainditzeko ez dituzten udalerrien eta udalez gaindiko erakundearen mugapeak
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

6. Zein da zuzena Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokionez?

- a) Eusko Jauriaritzaren mende dago zuzenean
- b) Euskal sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioen organo fiskalizatzaile gorena da
- c) Haren eginkizuna da jarduera ekonomikoari, finantzarioari eta aurrekontuen arlokoari buruzko proposamenak aztertzea, eta proposamen horiek Jauriaritzari eta foru-aldundiei aurkeztea
- d) Independentziarik gabe eta ordenamendu juridikoari erabat atxikita bete behar ditu bere eginkizunak

7. Zein EZ da lurralde-mailako toki-erakunde bat?

- a) Probintzia
- b) Autonomia-erkidegoa
- c) Udalerria
- d) Metropolialdeak

8. Zer dagokio diputazioko lehendakariari?

- a) Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera
- b) Probintziaren gobernu eta administrazioa zuzentzea
- c) Diputazioaren erabakiak argitaratu, bete eta betearazteko agintzea
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

9. Zein da administrazio publikoek ematen dituzten administrazio-egintzen ezaugarri bat?

- a) Ofizioz emango dira eta eskumena duen organoak gauzatuko ditu
- b) Ofizioz eta interesdunak eskatuta emango dira eta eskumena duen organoak gauzatuko ditu
- c) Ofizioz nahiz interesdunak eskatuta emango dira eta eskumena duen organoak gauzatuko ditu
- d) Interesdunak eskatuta emango dira eta eskumena duen organoak gauzatuko ditu

10. Zein kasutan dira erabat deusezak administrazio publikoen egintzak?

- a) Ezinezko edukia badute
- ~~b) Arau-hauste penar badira edo halako baten ondorioz eman badira~~
- ~~c) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete~~
- ~~d) Erantzun guztiak zuzenak dira~~

11. Nola eman behar dira administrazio publikoen organo eskudunek betekizunei eta prozedurari jarraituz emandako administrazio-egintzak?

- a) Ahoz emango dira, oro har, eta ez da beharrezkoa izango jasota geratzea
- b) Idatziz emango dira, non eta haien izaerak ez duen eskatzen edo ahalbidetzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat
- c) Idatziz emango dira, bitarteko elektronikoaren bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat
- d) Idatziz edo ahoz emango dira, baina azken kasu horretan beharrezkoa bada egintza idatziz jasota geratzea, organo goreneko tituluarrak sinatu beharko du

12. Behin prozedura hasita, erantzun hauetatik zein da zuzena?

- a) Interesdunek ezin izango dute alegaziorik aurkeztu prozeduraren ezein fasetan
- b) Interesdunek alegazioak egin ahal izango dituzte ebazpenarekin batera
- c) Interesdunek aukera izango dute prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen, alegazioak egiteko
- d) Ezin izango da alegaziorik aurkeztu prozedura ofizioz hasi bada

13. Hauetatik zein dira administrazio-prozedura amaitzeko aukerak?

- a) Ebazpena eta uko egitea
- b) Ebazpena, atzera egitea, uko egitea
- c) Ebazpena, atzera egitea, uko egitea eta iraingitzat deklaratzera
- d) Ebazpena, atzera egitea, uko egitea eta iraingitzat deklaratzera. Halaber, gerora sortutako arrazoiengatik, materialki ezinezkoa bada jarraitzea

14. Noiz jotzen dira interesduntzat administrazio-prozedura baten ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituzten pertsonak?

- a) Kasu guztietan
- b) Betiere prozedura hori eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboaren titular modura sustatu badute
- c) Behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran
- d) Ekonomia- eta gizarte-interesen ordezkari diren elkarte edo antolakundetako kide badira

15. Zein da gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko epea?

- a) Hiru hilabete
- b) Hilabete bat
- c) Bi hilabete
- d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

16. Kontratazio publikoari buruzko araudiaren arabera, erakunde hauetatik zein da sektore publikokoa?

- a) Unibertsitate publikoak eta pribatuak
- b) Organismo autonomoak
- c) Fundazio publikoak eta pribatuak
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

17. Zer kontratu-mota dira botere adjudikatzaila izan eta administrazio publikoen izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituztenak?

- a) Kontratu mistoak
- b) Kontratu pribatuak
- c) Kontratu publikoak
- d) Zerbitzu-kontratuak

18. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera, ordaindutako lizentziak emango dira behar bezala justifikatutako zenbait zioengatik. Zein da erantzun zuzena?

- a) Etxebizitzaz aldatzeagatik
- b) Oporrengatik
- c) Kide anitzeko organoen bileretara joateagatik
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

19. Nori dagokio Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak onetsi, haien jarraipena egin eta kontrolatzea?

- a) Batzar Nagusiei
- b) Foru Aldundiari
- c) Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

20. Zer dira Batzar Nagusiek emandako xedapen orokorrak?

- a) Foru-arauak
- b) Foru-aginduak
- c) Foru-dekretuak
- d) Ebazpenak

21. Nola onetsiko dira Foru Aldundiko sail bakoitzaren egitura organikoa eta haien erregelamendu organikoak?

- a) Foru Aldundiaren foru-arau bidez
- b) Foru Aldundiaren foru-dekretu bidez
- c) Dagokion foru-diputatuaren foru-agindu bidez
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

22. Zein da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren aplikazio-eremua?

- ~~a) Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde publikoari eta pribatuei aplikatzekoa da~~
- ~~b) Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeei baino ez zaie aplikatu behar~~
- ~~c) Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde pribatuei eragingo die beti~~
- d) Bizkaiko Sektorre Publikoarekin harreman arautuak (kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak...) dituzten erakunde pribatuei eragingo die

23. Noiz egin behar da generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena?

- a) Foru-arauen proiektuen kasuan
- b) Goi-kargudunak kendu eta izendatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuen kasuan
- c) Egitura organiko eta funtzionalari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuen kasuan
- d) Sariak eta ohoreak arautu eta ematen dituzten Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuen kasuan

24. Nola definitzen du mendetasuna 39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak?

- a) Egoera mental eta fisiko patologikoa, zeinetan pertsona batek estimulu jakin bat behar duen ongizate-sentsazio bat lortzeko
- b) Adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, baina autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzak aurrera eraman ahal izateko
- c) Pertsona batzuek bizi duten egoera, autonomia fisikoaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz asistentzia behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako ekintza arruntak aurrera eraman ahal izateko, bereziki, norberaren zainketari dagozkionak
- d) Adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, baina autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzak aurrera eraman ahal izateko; edo adimen-ezintasuna edo gaixotasun mentala dutenen kasuan, autonomia pertsonala izateko beste laguntza mota batzuk behar dituztenen egoera

25. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak araututako arreta eskaintzeko banan-banako programari (PIA) dagokionez, zein da zuzena?

- a) Programak (PIA) Estatu osoan dauka balioa
- b) Erabiltzaileak aukeratutako zerbitzu eta prestazioak jasoko ditu beti
- c) Administrazioak bere kabuz berrikusiko du araudiak zehaztuko duen aldikotasunez
- d) Gutxienez, 2 urterik behin berrikusi behar da

26. Zein mendetasun-gradu zehazten ditu Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak?

- a) I. gradua, mendetasun txikia; II. gradua, mendetasun arina, eta III. gradua, mendetasun latza
- b) I. gradua, mendetasun txikia; II. gradua, mendetasun arina, eta III. gradua, mendetasun handia
- c) I. gradua, mendetasun txikia; II. gradua, mendetasun larria, eta III. gradua, mendetasun handia
- d) I. gradua, mendetasun arina; II. gradua, mendetasun larria, eta III. gradua, mendetasun handia

27. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikulua araberan, zein baldintza bete behar dute atzerritarrek, nahitaez, gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen titular izateko?

- a) Eskubidea egiteko unean Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta daudela egiaztatzea
- b) 12 hilabete jarraitutan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela egiaztatzea
- c) 3 urtez Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean legezko eta benetako bizilekua izan dutela egiaztatzea
- d) 5 urtez Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean legezko eta benetako bizilekua izan dutela egiaztatzea

28. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan zein prestazio sartuko dira, gutxienez?

- a) Teknikoak, ekonomikoak eta osagarriak
- b) Ekonomikoak, teknologikoak eta osagarriak
- c) Teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak
- d) Ekonomikoak, teknologikoak eta ostatuarekin lotutakoak

29. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolaketa eta egiturari dagokienez, zein da erantzun OKERRA?

- a) Udalen gizarte-zerbitzuek emandako zerbitzuak lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen barruan sartzen dira
- b) Foru-aldundien gizarte-zerbitzuek emandako zerbitzuak bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen barruan sartzen dira
- c) Autonomia-erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuek emandako zerbitzuak hirugarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen barruan sartzen dira
- d) Autonomia-erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuek emandako zerbitzuak bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen barruan sartzen dira

30. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, mendetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua lortzeko baldintzei dagokienez, legezko bizilekua egiaztatzen ez duen pertsona baten kasuan, zein da erantzun ZUZENA?

- a) Ezin du zerbitzua lortu, Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zerbitzu eta prestazioak lortzeko 39/2006 Legearen 5.1 artikuluan jasotako baldintzak bete behar direlako
- b) Nahikoa izango da eskaera egiten den lurralde historikoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eskaera egiten den egunean
- c) 12 hilabete jarraitutan erroldatuta egon dela egiaztatzea
- d) Ez da legezko bizilekuari edo erroldari dagokion baldintzarik bete behar zerbitzu hau lortzeko

31. Gizarte-larrialdiko egoeretan, nola lortuko da sarbidea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara?

- a) Udalaren gizarte-zerbitzuen bitartez
- b) Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren bitartez
- c) Bi sarbideetako bat ere ez da zuzena
- d) a eta b zuzenak dira

~~32. Otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoak, Arreta Plan Pertsonalizatua definitzen du. Plan horri dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?~~

- a) Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak egingo du
- b) Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak egingo du
- c) Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak zer jardun garatuko dituzten baino ez du zehaztuko
- d) Ez ditu jasoko osasunaren arloan garatzen diren jarduerak

33. Osasunaren ikuspegitik, norentzat EZ dira bereziki egoitza-unitate soziosanitarioak?

- a) Gaixotasun-prozesu akutu batetik suspertzen ari diren pertsonak
- b) Bizitzaren amaieran zainketak behar dituzten pertsonak
- c) Gizarte-larrialdian dauden pertsonak, egoitza-baliabide batera sartu ezin dutenak
- d) Beste pertsona batzuk, baldin eta tratamendua uzteak arazo bat eragin badezake osasun publikoan

34. 2017-2020rako Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoetan jasotako xede-kolektiboei dagokienez, baieztafen hauetako zein da OKERRA?

- a) Ezintasunen bat daukaten pertsonak edo mendekotasun-egoeran daudenak arreta soziosanitarioaren xede den populazioaren zati dira
- b) Arreta bereziaren beharrezina daukaten umeak arreta soziosanitarioaren xede den populazioaren zati dira
- c) Bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak ez dira arreta soziosanitarioaren xede den populazioaren zati
- d) Gaixotasun arraroak dauzkaten pertsonak arreta soziosanitarioaren xede den populazioaren zati dira

35. Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitarioak Bizkaian indarrean dauden hainbat protokolo jasotzen ditu. Zein EZ dago horien artean?

- a) Alboko esklerosi amiotrofikoa diagnostikatu dieten pertsonen mendekotasuna baloratzeko eta egoera horretan laguntzeko protokoloa
- b) Banako arreta-programa (PIA) arreta integral eta integratua sartzeko protokoloa
- c) Ospitaleko altaren jarraipena egiteko protokoloa
- d) Gurutzetako Ospitalean ospitaleratuta dauden bizkarrezur-muineko lesiodunen mendekotasuna arinago baloratzeko protokoloa, era horretan, laguntzak eskatzeko, etxebizitza egokitzen joate aldera

36. EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedurari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?

- a) Egoera oso arrisku larriagatik alertatzen joko da adierazle galdetegiaren lortutako puntuazioa 3 eta 4,5 punturen artean bada
- b) Arriskuaren balorazioa larria bada, ebaluazio geriatriko soziosanitarioa egin beharko da 3 hilabete igaro baino lehen
- c) Fiskaltzari informazioa eman beharko zaio berehala esku hartzeko egoera guztietan
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

37. Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenak (FNS) bi zatitan antolatzen du informazioa: funtzionamenduari eta desgaitasunari buruzko zatia da bata, eta bigarrena, testuinguruko faktoreei buruzkoa, eta zati bakoitzak, era berean, bi osagai ditu. Osagai horiei dagokienez, zein da erantzun ZUZENA?

- a) Gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak ez dira funtzionamenduari eta desgaitasunari dagozkion osagaiak.
- b) Gorputz-funtzioak eta gorputz-egiturak funtzionamenduari eta desgaitasunari dagozkion osagaiak dira
- c) Ingurune faktoreak eta faktore pertsonalak testuinguruko faktoreei dagozkien osagaiak dira
- d) B) eta C) dira erantzun zuzenak

38. Mendekotasuna duten pertsonentzako RAI Screener+ tresnak haiek etxean zein zainketa maila behar duten zehazten du, edo erakunde-mota hautatzeko aukera ematen du algoritmo bat aplikatuz. Zein da erantzun hauen artean **ZUZENA**?
- a) UNAI (Uniform Needs Assessment Instrument)
 - b) Michigan Choice
 - c) CAP (Client Assessment Protocol)
 - d) Horietako bat bera ere ez
39. Eskabidearen sarrera-datatik mendekotasunari dagokion prestazioa aitortzeko ebazpena ematen den arte, zenbateko epea egongo da gehienez?
- a) Bi hilabetekoa
 - b) Hiru hilabetekoa
 - c) Sei hilabetekoa
 - d) 30 egun naturalekoa hiru urtetik beherakoen kasuan
40. Mendekotasunaren Balorazio Baremoa (MBB) aplikatzean, etxean zein etxetik kanpo egiten diren zeregin eta jarduerak baloratzen dira. Hauetako zeintzuk?
- a) Janaria zatitzea eta janaria ahora eramateko mahai-tresnak erabiltzea
 - b) Pixa eta kaka egin ostean garbitzea, erabakiak hartzea
 - c) Gorputzaren goiko aldea garbitzea, iturriak ireki eta ixtea, kanpora ateratzea (etxetik kanpoko joan-etorrien jardueraren barruan)
 - d) a eta b zuzenak dira
41. Berariazko Balorazio Eskalari (BBE) dagokionez, zein da okerra?
- a) 0 eta 3 urte arteko pertsonen mendekotasun-egoera baloratzen du
 - b) 6 hilabete eta 30 hilabete arteko pertsonen mendekotasun-egoera baloratzen du
 - c) Ez da behin betikoa
 - d) 3 puntuko azken puntuazioa mendekotasun handiaren egoeraren baliokidea da
42. Egoitza-zerbitzuari buruz, zein da zuzena?
- a) Helburu dauka mendekotasuna duen pertsonaren premiei erantzutea, gauean arreta behar badu
 - b) Zentro publikoetan bakarrik eman daiteke
 - c) Zentroetan ematen den laguntzak kontuan hartu behar du mendekotasunaren izaera eta gradua
 - d) Aldi baterakoa bakarrik izan daiteke zaintzaile ez-profesionalak gaixotasun larri bat duenean
43. Mendekotasun-egoera eta Arreta Emateko Banakako Programa (PIA) berrikusteari dagokionez, zein da erantzun zuzena?
- a) Larriagotzen den kasuan eta diagnostikoan akatsa egon den kasuan bakarrik izango da posible mendekotasunaren gradua berrikustea
 - b) Ezin da inoiz gaitziritzi
 - c) Eskaera interesduna erroldaturik dagoen udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan entregatu behar da
 - d) Egoera aldatu egin dela egiaztatzen duten txostena edo txostenak aurkeztu behar dira

44. Zeintzuk dira aparkatze-txartela lortzeko eskubidearen pertsona titularrak?

- a) Mendekotasun-egoeran izan eta gurpil-aulkia ezinbestean erabiltzen duten pertsona fisikoak
- b) Gaixotasun neurodegeneratiboak dituzten pertsonak, mugikortasun-baremoko mugaren bat badute
- c) Mendekotasun-egoeran izan eta $\leq 0,1$ eko ikusmen-zolitasuna eta ≤ 10 graduko ikus-eremua duten pertsonak
- d) Horiek guztiak

45. Abenduaren 26ko 192/2018 Foru Dekretuaren ondorioetarako, zer ezaugarri ditu zaintzaileak?

- a) Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren (PECEF) hartzaile ere izan daiteke
- b) Ahaidetasunari eta bizilekuari buruzko baldintzak bete behar ditu kasu guztietan
- c) Zaintzaileak mendetasun-egoeran dauden bi pertsona baino gehiago zaindu ahal izango ditu
- d) Denak daude oker

46. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa dela eta, zein da zuzena?

- a) Bateriaezina da etxeko laguntza-zerbitzuarekin eta telelaguntza-zerbitzuarekin
- b) Bateriaezina da telelaguntza-zerbitzuarekin bakarrik
- c) Bateriaezina da etxeko laguntza-zerbitzuarekin bakarrik
- d) Denak daude oker

47. María 85 urteko emakumea da, Parkinsonen gaixotasun aurreratua duena. 2 graduko mendekotasuna du, baina desgaitasuna baloratu gabe dauka. Etxean moldatzeko zailtasunak ikusita, haren alabak erabaki du egoitza batera sartzea. Zein da erantzun OKERRA?

- a) Ezin du eskatu laguntza-produktuetarako dirulaguntzarik, desgaitasuna baloratu gabe baitauka
- b) Ezin du eskatu eskaren aurkako koltxoia erosteko dirulaguntzarik
- c) Ezin du eskatu ohe artikulatua erosteko dirulaguntzarik
- d) Gulpil-aulkia erosteko dirulaguntza eskatu dezake

48. Pertsona batek 2 urritasun edo gehiago dituen kasuari dagokionez, zein da zuzena?

- a) Gehitu egiten dira haietako bakoitzaren ehunekoak
- b) Konbinatu egiten dira haietako bakoitzaren ehunekoak
- c) Ehuneko handiena baino ez da aintzat hartzen
- d) Bakarrik konbinatzen dira organo edo sistema beretan sortutako urritasunen ehunekoak

49. Zein epaitegiaren aurrean hasi behar da jarduteko gaitasuna aldatzeko prozedura?

- a) Ustezko ezgaia ingresatuko den tokiko guardiako epaitegiaren aurrean
- b) Ustezko ezgaia ingresatuko den tokiko lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean
- c) Ustezko ezgaia bizi den tokiko guardiako epaitegiaren aurrean
- d) Ustezko ezgaia bizi den tokiko lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean

50. Guraso-ahal luzatuari dagokionez, zein da zuzena?

- a) Kasu honetan ezartzen da: ezgaia adinez nagusia eta ezkongabea bada eta bere gurasoekin eta haietako batekin bizi bada
- b) Ezarri behar da ezgaitutako pertsona adingabekoa bada eta gurasoekin eta haietako batekin bizi bada
- c) Biak dira zuzenak
- d) Biak dira okerrak

51. Lupus eritematoso sistemikoaren tratamendua (LES) dela eta, zein da erantzun zuzena?

- a) Kasuen % 80an sendatzen du
- b) Sintomen larritasunaren arabera aldatzen da
- c) Kortikoideak aginduta daude, kasu arinetan ere
- d) Kortikoideak ezin dira erabili farmako immunoezabatzaileekin

52. María, 75 urtekoa, lehen arretako medikuarenera joan da ezkerreko gonalgiaatik. Aurretiazko aurrekarien artean, nabarmentzekoa da orain dela 5 urte izandako eroriko bat, errotularen haustura ekarri zuena. Ordutik hona, mina handituz joan da, ibiltzea oztopatu arte (lur lauan ere bai). Miaketan ikusi da ezkerreko belaunean valgus-deformazioa duela eta artikulazioa zirtakatzen dela mugimendu pasiboetan. Rx-ean argi ikusten da espazio artikularraren estutzea. Zein da diagnostikorik probableena?

- a) Hausturaren erreaziozko artritisa
- b) Artritis psoriasikoa
- c) Osteoartrosia
- d) Osteonekrosia

53. Espondilitis ankilosatzeari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Batez ere, 50 urtetik gorako gizonek jasan ohi dute
- b) Min estra articularra entesopatiak eragiten du
- c) Mina eta zurruntasuna oheratutakoan arindu ohi dira
- d) Guztiak zuzenak dira

54. Gorreri sensorioriala dela eta, zein da erantzun zuzena?

- a) Zenbait faktoreren ondorio izan daiteke; haietako bat zarata gogorrekiko esposizioa
- b) Kanpoko entzunbidea belarriko argizariz buxatzearen ondorioa izan daiteke
- c) Otoesklerosia izan ohi da gorreri sensorioriala jasateko arrazoiak.
- d) Kolesteatoma izan ohi da gorreri sensorioriala jasateko arrazoiak.

55. Estresaren eta lanaren zioz Erreta Egotearen Sindromearen (SQT) diferentziak direla eta, zein da erantzun zuzena?

- a) Hiperaktibitate emozionala estresean; SQTen, aldiz, sorgortze emozionala
- b) Kalte fisiologikoa lehen mailako substratuan, prozesu bietan
- c) Estresak efektu positiboak izan ditzake, esposizio moderatuetan
- d) a eta c

56. Estresaren aurkako erreakzio organikoak egokitzeko sindrome orokorra eragin dezake; zein dira sindrome horren faseak?
- Ebaluazio kognitiboa, aktibatze fisiologikoa eta antsietatea
 - Alarma, erresistentzia eta akidura
 - Esposizioa, akidura eta aurre-egitea
 - Aurrekoetatik batek ere ez
57. Otsailaren 25eko 17/2014 Foru Dekretuaren ondorioetarako, zer bete behar da familia-elkarketa zuzeneko zein alboko odol bidezko hirugarren mailara arte ahaideek osatzen badute?
- Ahaideak gutxienez mendetasun arina aitortuta izatea
 - Gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetako prestazio bat jasotzea
 - Onuradunarekin bizi izana egoitzara sartzeko eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan, gutxienez
 - Erantzun zuzenak a) eta b) dira
58. Uztailaren 1eko 84/2014 Foru Dekretuaren ondorioetarako, hauen artean zein ezin izango dira izan egoitza-zerbitzuko erabiltzaile aldi baterako egonaldi bat egiteko?
- Arnas-aparatuko gaixotasun kronikoa dutenak, transmisio-bidearen arabera
 - Zentroaren funtzionamendua edo bertako bizitza guztiz eragotz dezaketen portaera-nahasmendu larriak dituztenak, adinekoen egoitza-zentroen berezko baliabideen bidez kontrolatu ezin direnean
 - I. graduako mendekotasuna duten pertsonak, batetik bestera ibiltzeko laguntza behar dutenak
 - Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueran laguntza behar duen eta mendekotasuna duen edozein pertsona
59. Ekainaren 21eko 113/2016 FDaren arabera, eguneko zentroei buruzko baieztapen hauetatik zein da **ZUZENA**?
- Intentsitate baxuko zerbitzua dira, aldi baterakoa edo iraunkorra, non arreta indibidualizatu eta integrala eskaintzen den pertsonaren autonomia-maila hobetzeko edo mantentzeko
 - Eguneko zentrotzat jotzen dira erretiratuentzako etxeak eta klubak eta egoitzetan egunez egoteko zerbitzua ere
 - Plaza psikogeriatrikoak eskaintzen dituzte, bakarrik gaixotasun mentalaren eta/edo narriadura kognitiboaren kasuan
 - Zonaka banatuko dira. Hala ere, salbuespen gisa, beren eragin-eremutik kanpo bizi den erabiltzailea artatu ahal izango dute, pertsona horren egoera familiarrak eta pertsonalak hala egitea gomendatzen duten kasuetan

60. Zein dira dementzia kortikalaren eta azpikortikalaren arteko diferentziak?

- a) Azpikortikala: hizkuntza-gaitasuna aldatuta dago, eta izaera modu berantiarrean afektatu da
Kortikala: hizkuntza-gaitasuna ez da aldatu, eta izaera modu berantiarrean edo gogorik ezarekin ageri da
- b) Azpikortikala: koordinazioaren afektatze goiztiarra, eta postura makurtua
Kortikala: koordinazioaren afektazio berantiarra eta postura zutitua
- c) Azpikortikala: mugimendu ez-normal berantiarra
Kortikala: mikloniak, dardara goiztiarrak
- d) Azpikortikalak eta kortikalak, biek dakarte afektazio berantiarra kalkulan

61. Dementia duen pazientearen balorazioari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Ez da ohikoa izaten arrazoi bakarra egotea; beraz, proba anitz erabili behar dira
- b) Gidalerroekin bat, hauek gomendatzen dira: tiroide-funtzioaren neurtze sistematikoa, gerriko ziztada eta EEG bat
- c) Ez da gomendatzen burmuineko biopsia, salbu eta gaixotasun prionikoa edo nahasmendu epileptiko bat diagnostikatzeko
- d) LCRen tau-proteinaren eta B42 proteina amiloidearen kontzentrazioek sentzibilitate eta espezifikotasun altuak erakusten dituzte, horregatik gomendatzen da haien erabilera sistematikoa

62. Alzheimerraren gaixotasunean gertatzen diren jokaera-nahasmenduak direla eta, zein da OKERRA?

- a) Haloperidola, oro har, ez da gomendatzen, haren sintoma estrapiramidalengatik eta botere lasaigarri handiegia izateagatik
- b) Farmako antipsikotiko atipiko edo bigarren belaunaldikoen artean, olzapina eta risperidona daude. Une hauetan farmako horiek aukeratzen dira dementzia duten adineko pazienteen sintoma psikotikoak edo jokaera-arlokoak tratatzeko
- c) Trazodona, efektu lasaigarriak dituenez, aintzat hartu behar da asalduraren tratamenduan eta loaren nahasmenduetan
- d) Farmakorik gabeko esku-hartzeko terapiak laguntzaileak dira, baina ez dira beharrezkoak jokaera-arazoak maneiatzeko

63. Zein da iktusaren koadro klinikoa afektatutako arteriaren arabera?

- a) ~~Garuneko erdiko arteria: dominante ez den hemisferioaren afektazioak afasia globala eta hemiplegia kontralaterala eragiten ditu.~~
- b) Garuneko aurreko arteria: hanka kontralateraleko ahultasun distala, lesioaren ondoan; askotan, lotuta agertzen da goiko gorputz-adarraren ahultasunarekin
- c) Garuneko aurreko eta erdiko arterien afektazioak iragaitzako amaurosia, zorabioak eta bertigoak eragiten ditu
- d) Orno-afektazioak ez du eragiten zerebelo-sindromerik

64. Irizpide diagnostiko hauetatik zein da beharrezkoa deliriuma definitzeko (CIE-10aren arabera)?

- a) Oso adintsua izatea, oro har, 80 urtetik gorakoa
- b) Kontzientzia-mailaren alterazioa, zuzendu, enfokatu eta arretari eusteko gaitasunaren gutxitzearekin
- c) Deliriuma historia klinikoaren eta miaketa fisikoaren bidez frogatu behar da (dagozkion proba osagarriak erabiliz), bai eta arrazoi organiko bat edo gehiago daudela ere
- d) Alterazio horrek denbora laburrean agertu behar du, eta egunean zehar gorabeherak izateko joera du

65. Mugikortasun-ezarekin lotutako konplikazioei dagokienez, zein da OKERREKO erantzuna?

- a) Geldotze psikomotorea dago, depribazio sensorioneuralaren ziozko narriadura kognitiboarekin
- b) Paziente immobilizatuak hipotentsio ortostatikoa jasan ohi du, bolumen zirkulatuaren gutxitzearekin batera
- c) Etzanera-posizioak arnas-giharren funtzio ona eragozten du; ondorioz, birika-hipoaireztapenari laguntzen zaio. Espektorazioa zailagoa da, eta bronkio-jariakinak pilatzen dira
- d) Jarduera fisikorik ezak hauek eragiten ditu: proteina-katabolismo bat, balantze nitrogenatu positibo bat, eta nutrizio-eskaera txikiago bat. Halaber, balantze mineral positibo bat dago, bai kaltzio, magnesio, potasio eta sodioaren gehikuntza bat ere

66. Erortzeko arrisku-faktoreak direla eta, zein da erantzun zuzena?

- a) Faktore intrintsekoen artean, hauek sartzen ditugu: adinarekin lotutako alterazio fisiologikoak, gaixotasun akutuak zein kronikoak eta farmakoen kontsumoa
- b) Faktore estrinsekoen balorazioan, aintzat hartu behar dira adinekoko mugitzen den ingurunea edo giroa eta haren jarduera
- c) Erorikoekin lotutako jarduera ohikoenen artean, hauek daude: ohetik altxatzea eta oheratzea, aulkian eseri eta bertatik altxatzea, eskailerak igo eta jaistea
- d) Aipatutako faktore guztiek garrantzi bera ez duten arren, guztiak dira egiazkoak

67. Aldaka-hausturaren tratamendua eta suspertze funtzionala direla eta, zein da zuzena?

- a) Gomendatzen da ebakuntza kirurgikoa egitea lehen 24 orduetan, kontraindikaziorik ez badago
- b) Kapsula arteko hausturetan, tratamendua hau da: osteosintesi bat edo barne-finkatze bat egitea
- c) Ebakuntza osteko konplikazioen artean, pazienteen % 40ra arte, aldi baterako zundaketa besikala egin beharra deskribatu da, zeina gertuaren erretentzio akutuaren ondorioa den
- d) Suspertze funtzional handiena hausturaren ondorengo 6 hilabeteen barruan gertatzen da, eta suspertze-maila handiena, eguneroko oinarrizko jardueretan jazotzen da, jarduera instrumentaletan baino

68. Presioaren ziozko ultzeren graduei dagokienez, zein da baieztapen OKERRA?

- a) I. estadioa: azal integroa, azal-eritema, sakatzean zurbiltzen dena
- b) II. estadioa: azalaren lodieraren galera partziala, epidermisa, dermisa edo biak afektatzen dituena
- c) III. estadioa: azalaren lodieraren galera erabatekoa, azal azpiko ehunaren lesioa dakarrena, baina ez azpiko fasziaगतिक
- d) IV. estadioa: lodieraren galera erabatekoa, eta ehunaren nekrosia edo gihar edo hezurreko lesioa

69. OMEren analgesikoen eskala. Zein da OKERRA?

- a) Lehen mailan, parasetamola da aukeratutako farmakoa mina arinetik moderatura bitartekoa tratatzeko, bereziki mina osteartrosiaren ondorioa denean
- b) Bigarren maila terapeutikoan, opioide txikiak eta laguntza-farmakoak daude
- c) Hirugarren mailan, opioide handiak eta laguntza-farmakoak daude
- d) Badago laugarren maila bat, minaren tratamendu inbaditzaileak barne hartzen dituenak (infusio-ponpak, kateterrak...).

70. Zein da OKERREKO baieztapena?

- a) Yesavageren depresio-eskalan (GDS) 30 galdera daude, zeinek erantzun dikotomikoak eskaintzen dituzten
- b) Yesavageren depresio-eskalan bertsio murriztuan, arreta semiologia depresiboan eta bizikalitatean fokalizatzen da. 14 galdera dira, eta 10 puntuko edo gehiagoko puntuazioa egonez gero, depresio probable bat ezartzen da
- c) Goldberg-en eskalak bi azpieskala ditu: antsietatearena eta depresioarena. Azpieskala bakoitzak erantzun dikotomikoko 9 galdera ditu
- d) Dementia moderatu-larria duten pazienteen kasuan, Cornell-en eskala erabiltzen da.

71. Balorazio funtzionaleko eskalei dagokienez, zein da zuzena?

- a) Gurutze Gorriaren desgaitasun fisikoaren eskalan, ebaluatutako subjektua honela sailkatzen da: 0 gradutik (mendekotasuna du eta erizaintza-zaintzak behar ditu) 5 graduraino (independentea)
- b) Katz-en eguneroko bizitzako jardueraren indizeak pazienteak 6 gradutan sailkatzen ditu: A-tik erabateko mendetasuneraino. Akutuen eta egonaldia luzerako ospitaleetan erabiltzen da, pazienteen egoera funtzionaletan aldaketa txikiagoak atzematen baititu
- c) Barthel-en indizeak lekualdatzeak hiru eginkizunetan zatitzen ditu: aulki-ohea motako transferentziak, hara eta hona ibiltzea eta eskailera igo eta jaitea; Katz-en indizeak, berriz, transferentziak bakarrik baloratzen ditu
- d) Barthel-indizea Oetik 100era puntuatzen da. Jarduerari 0 puntu ematen zaie, pazienteak mendekotasuna bada; eta 15 puntu, independentea bada hara eta hona ibiltzeko eta eskaileren erabileran

~~72. Pazientea depresioa duen adineko emakume bat da; gainera, gaixotasun hauek ditu: bihotz gutxiegitasun aurreratua, biriketako hipertentsio larria, anemia eta giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa. Zein farmako erabiliko zenuke?~~

- a) Amitriptilina
- b) Klorpromazina
- c) Sertralina
- d) Imipramina

73. Nahasmendu komorbido hauen artean, zein da ohikoena nahasmendu bipolarrean?

- a) Nahasmendu somatomorfea
- b) Nortasunaren nahasmenduak
- c) Nahasmendu-egoerak
- d) Nahasmendu obsesibo-kompulsiboa

74. Antsietate-nahasmendu orokorrari dagokionez, zein alderditan bereizi ohi dira gehien emakumeak eta gizonak?

- a) Eritasunaren bilakaeran
- b) Sintomatologian
- c) Komorbilitate-ereduan
- d) Nahasmendua hasten den adinean

75. Nortasunaren nahasmendu hauen artean, zeinetan agertzen dira nekezago haluzinazio-sintomak?

- a) Borderline-nahasmenduan
- b) Nahasmendu eskizotopikoan
- c) Nahasmendu obsesibo-konpultsiboan
- d) Nahasmendu paranoidean

76. Garapeneko atzerapen orokorra dela eta, zein da baieztapen ZUZENA?

- a) Diagnostikoa 5 urtetik beherako umeei egin ohi zaie
- b) Normalean, etiologia zein den zehaztu daiteke
- c) Nahasmendua progresiboa da
- d) Oro har, nahasmendua ez da gertatzen neurogarapenaren beste nahasmendu batzuekin batera

77. Ezaugarri hauen artean zein ez dagokio autismoaren espektroko nahasmenduarekin diagnostikatutako umeen garapenaren bilakaerari?

- a) 3 urteko adina izan aurretik ageri diren jokabide-ezaugarriak
- b) Sintoma-eredu osoa ez da ageri 2-3 urte izan arte
- c) Gurasoek askotan aipatzen dute portaera sozialen garapenaren geldiaraztea edo erregresioa
- d) Domeinu anitzetako erregresioa 2-3 urteren ondoren gertatzen da

78. Eskizofreniaren sintoma hauen artean, zein da pronostiko txarreko faktore bat?

- a) Prodomo arina
- b) Depresio-sintomarik eza
- c) 25-30 urte bitarteko adinean hastea
- d) Obsesio-sintomarik eza

79. Paranoia eta eskizofreniaren diagnostiko diferentziala dela eta, zer da OKERRA?

- a) Pertsekuzio-konfusiak bietan agertzen dira
- b) Delirioa ulergarriagoa da paranoian
- c) Nia desegituratuago dago eskizofrenian
- d) Biak agertu ohi dira adin berberetan

80. Farmako batzuek parkinsonismoa eragin dezakete. Ondoren aipatzen direnetako batek parkinsonismoarekin nahastu ahal den dardara-koadro bat eragin dezake. Zein da?

- a) Metildopa
- b) Neuroleptikoak, batez ere zaharrak
- c) Metoklopramida
- d) Valproato

81. Zein EZ da sartzen ezaugarri atipikoak dituzten parkinsonismo-kasuen barruan?

- a) Lewy-ren gorputzen dementzia
- b) Atrofia multisistemikoa
- c) Paralisi supranuklear progresiboa
- d) Farmakoek eragindako parkinsonismoa

82. Hauetatik zein da zerebelo-ataxiaren ezaugarri bat?

- a) Sentikortasun propiozeptiboaren akatsa
- b) Dismetria
- c) Romberg-en zeinu positiboa (+)
- d) Zurruntasuna

83. Unitate motorraren lesio bati egotzi ahal zaion muskulu-ahuleria, faszikulaziorik gabe; badaude erreflexuak, edo gutxituta daude; ez dago atrofiarik. Non dago lokalizatuta gaitza?

- a) Aurreko adarraren motoneuronan
- b) Nerbio-enbor periferikoetan
- c) Lotune neuromuskularrean
- d) Muskuluetan

84. Duela 6 hilabete esklerosi anizkoitza diagnostikatu zitzaion gaixo bat joan da kontsultara. Zein sintomatologia EZ duzu aurkituko?

- a) Diplopia
- b) Entzumenaren nahasmenduak
- c) Gernu-nahasmenduak
- d) Depresioa

85. Kasu kliniko hauetatik, zeinek dauka lotura probableena esklerosi anizkoitz batekin?

- a) 36 urteko emakumea; lepoa tolesten duenean, deskarga elektrikoak sentitzen ditu lepoaldetik ipurmasailetaraino. Miaketa egin zaionean, piramidalismoa aurkitu zaio hanka bietan, eta hemihipoestesia D1 ornoan
- b) 22 urteko emakumea; krisi toniko-kloniko orokortuak ditu (duela gutxi hasi dira); azterketa neurologikoa normala da, eta esklerosi tonperal mesiala hauteman da garezurraren erresonantzia magnetikoan
- c) 42 urteko gizona; goranzko parästesia azpiakutuak ditu hanketan eta besoetan; paraparesia simetrikoa eta erreflexuen galera unibertsala
- d) 54 urteko gizona; narriadura kognitiboa du, azkar garatzen ari dena, eta garezurraren erresonantzia magnetikoan lesio peribentrikular anizkoitz hiperintentsoak eta laguna azpikortilakalak ikusi dira

86. Koadro hau dugu: ahuleria progresiboa eta nerbio periferikoen banaketa-eremuei etenekin eta modu asimetrikoan eragiten dieten arrapak agertzen dira sarritan; ez dago sintoma sentsitiborik; arranpekin batera, faszikulazioak daude; erreflexuak normalak dira edo apur bat murriztuta daude hasierako faseetan, eta desagertu egiten dira fase aurreratuetan. Zer gaixotasun da?

- a) Mononeuropatia anizkoitza
- b) Alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA)
- c) Botulismoa
- d) Foku anitzeko neuropatia motorra

87. Miastenia larria (MG) diagnostikatu zaien pazienteen kasuan, zer EZ dago kontraindikaturatuta?

- a) Antibiotiko aminoglukosidoak
- b) Beta-blokeatzaileak
- c) Potasio-galera eragiten duten botikak
- d) Agente gaseosoen bidezko anestesia

88. Zein da muskulu-distrofia guztien ezaugarri bat?

- a) Ahuleria nabarmenagoa muskulu proximaletan
- b) Zentzumenen nahasmendua
- c) Muskuluen ahuleria, nagusiki maila distalean
- d) Adineko pazienteei eragiten die

89. Paralisi zentraletatik, zeinetan dira ohikoak zerebelo-nahasmenduak?

- a) Hemisferioetan lokalizatuta daudenetan
- b) Entzefaloaren enborrean lokalizatuta daudenetan
- c) Bizkarrezur-muinean lokalizatuta daudenetan
- d) Guztietan

90. Semiologia hau dugu: mina izterraren aurreko aldean, ahuleria koadrizeps muskuluan eta aurreko muskulu tibialean, hankaren aurreko aldearen hipoalgesia eta belaunezurreko erreflexuaren galera. Diskoko hernia dela pentsatu behar dugu, baina non dago kokatuta?

- a) L5-S1 ornoetan (S1 nerbio-sustraia)
- b) L4-L5 ornoetan (L5 nerbio-sustraia)
- c) L3-L4 ornoetan (L4 nerbio-sustraia)
- d) Guztietan

91. Mendekotasunaren Balorazio Baremoa (MBB) aplikatzen duten ebaluatzaileei dagokienez, zein da zuzena?

- a) Ondo ezagutu behar dute ebaluazioa eta baremoa arautzen dituen araua
- b) Mendekotasuna duten pertsonen talde jakin batzuen ezaugarri funtzionalak ezagutu behar dituzte
- c) Behar bezala erabili behar dituzte informazio-iturriak: osasun-txostena, elkarrizketa pertsonala eta behaketa-zuzena
- d) Denak dira zuzenak

92. Zein da zuzena etxeko laguntza-zerbitzuari (ELZ) dagokionez?

- a) Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza pertsonala sartzen da zerbitzu horretan
- b) Etxeko beharrianak betetzea sartzen da zerbitzu horretan
- c) Zerbitzuaren intentsitatea zehazteko, hilean emango diren orduak finkatzen dira
- d) Denak dira zuzenak

93. Eskubide hauetatik zein da "eskubide guztiz pertsonal" deitzen zaienetako bat?

- a) Hauteskunde-mahai batean ahaldun gisa jardutea
- b) Harreman sexualak izatea
- c) Biak
- d) Bat ere ez

94. Zein da zuzena artritis erreumatoideari dagokionez?

- a) Kausa ezezaguna da
- b) Mina, hipersentikortasuna eta edema agertzen dira ukitutako giltzaduretan
- c) Giltzadura-deformazioak agertu ohi dira
- d) Denak dira zuzenak

95. Zein da erantzun OKERRA sedazio terminalari dagokionez?

- a) Egokia da hiltzeko zorian dauden pazienteen kasuan
- b) Tratamendu konbentzionalek eragindako sintoma errefraktarioak arintzeko erabili behar da
- c) Ez da egokia egoera terminalean dagoen gaixoak arrazoi existentzialak direla-eta eskatzen duenean
- d) Erabili behar da pazientearen bizia laburtuko duela uste bada ere

96. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen aplikazio-eremuari dagokionez, zein da zuzena?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek ematen dituzten gizarte-zerbitzuetako jarduera guztiei aplikatuko zaie
- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin elkarlanean aritzen diren erakunde pribatuek ematen dituzten gizarte-zerbitzuetako jarduera guztiei aplikatuko zaie
- c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte hartzen ez duten gizarte-zerbitzuetako erakunde pribatuei xedapen jakin batzuk aplikatuko zaizkie
- d) Hiru erakunde horiei aplikatuko zaie

97. Zerbitzu hauetatik zein EZ da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzu bat?

- a) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- b) Tutoretzapeko etxebizitza
- c) Telelaguntza-zerbitzua
- d) Gizarte-larrialdietako koordinazio-zerbitzua

98. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?

- a) Hiru euskal hiriburuetako alkateak kontseilu horretako kide dira
- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Osasun Sistemaren ordezkaritza paritarioa du
- c) Gaur egun 12 kide ditu
- d) Hiru lurralde historikoetako foru-diputatuak kontseilu horretako kide dira

99. Proiektu hauetatik zein EZ dago sartuta Bizkaiko Plan Operatibo Soziosanitarioan?

- a) Bizkaiko batzorde soziosanitario bat arautzea
- b) Osasun mentaleko arazoak, desgaitasun edota mendekotasunen bat duten edo gizarteak baztertua dauden pertsonak bideratzeko eta baliabide egokiak esleitzeko formulak zehaztea
- c) LGBTren jardunbide egokien gida egitea
- d) Elkarlan soziosanitariorako pilotuak sustatzea

100. EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedurari dagokionez, zein da adineko pertsonenganako tratu txarren definizioa?

- a) Pertsonaren osasunari edo ongizateari kalte bat eragiten dion edo eragin diezaiokeen edozein egite edo ez-egite
- b) Adineko pertsonaren aurkako jokabide suntsizua, konfiantzazko harreman baten barruan ematen dena eta ondorio fisiko, psikologiko, sozial eta finantzariorik sortzeko besteko intentsitatea duena. Beharrezkoa ez den sufrimendua, lesioak, mina edo giza eskubideen galera edo murrizketa eragiten du, baita adinekoaren bizi-kalitatea murriztea ere.
- c) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, eta konfiantza espero izatekoa den edozein harremanetan gertatzen dena.
- d) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, eta konfiantza espero izatekoa den edozein harremanetan gertatzen dena, betiere ekintza hori nahita egindakoa bada

ERRESERBARAKO GALDERAK:

101. Desgaitasun-gradua zehazteko gizarte-faktoreei dagokienez, zein da zuzena?

- a) Baremoa aplikatu ahal izateko, jarduera-mailako mugapenen gutxieneko ehunekoa ezin izango da % 25etik gorakoa izan
- b) Baremoa aplikatu ahal izateko, jarduera-mailako mugapenen gutxieneko ehunekoa ezin izango da % 25etik beherakoa izan
- c) Baremoa aplikatu ahal izateko, jarduera-mailako mugapenen gutxieneko ehunekoa ezin izango da % 15etik gorakoa izan
- d) Gizarte-faktoreek ez daukate inolako eraginik desgaitasun-graduan

102. Zein adinetako pertsonak dira Euskal Autonomia Erkidegoan arreta goiztiar integralaren hartzaile?

- a) 0-3 urtekoak
- b) 0-6 urtekoak
- c) 0-6 urtekoak, eta, hala dagokionean, kasuan kasuko ikasturtea hasi arte luza daiteke
- d) 0-14 urtekoak (adin pediatrikoa), gehienez ere, premien arabera

103. Sedazio-aringarria dela eta, zein da OKERREKO baieztapena?

- a) Morfina da sedazioan gehien erabiltzen den farmakoa
- b) Deliriuma da gehienetan sedazio-aringarria serie gehienetan erabili beharra dakarren sintoma
- c) Baldin eta sintoma errefraktario bat agertzen bada bizitzaren azken egunetan dagoen paziente baten kasuan, beharrezkoa izango da adostasun esplizitua, inplizitua edo ordezkaturia izatea sedazioari ekin aurretik
- d) Taldean adostutako diziplina anitzeko erabakia lagungarria izan daiteke sedazioa tresna aringarri gisa erabiltzeko

104. Zer da laguntza-produktu bat abenduaren 26ko 171/2017 Foru Dekretuaren ondorioetarako?

- a) Desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen parte-hartzea errazteko erabiltzen den edozein produktu
- b) Merkatuan eskura daitekeen edozein produktu estandar, betiere desgaitasuna edo mendetasuna duen pertsona batek erosten badu
- c) Biak
- d) Aurrekoetako bat ere ez

105. Espondilitis ankilosatzearen tratamenduaren barruan zer erabiltzen da?

- a) Posturari eta mugikortasunari eusteko ariketa
- b) TNFren (tumorearen nekrosi-faktorea) farmako modulatuzaileek funtzioa hobetzen dute
- c) Kortidoide orokorrek ez dute eskaintzen onura terapeutiko dokumentaturik
- d) Denak dira zuzenak

106. Zein EZ dago koordinazio soziosanitarioari buruzko autonomia-erkidegoko oinarrizko araudiaren barruan?

- a) 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanei buruzkoa
- b) Maiatzaren 19ko 9/1983 Legea, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekikoa
- c) 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena
- d) 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

107. Zer behar da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko?

- a) Kasuan kasuko motibazioa
- b) Interesdun izaera egiaztatzea
- c) Eskubide edo interes legitimoa egiaztatzea
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena

~~108. Non dago espresuki jasota Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein organismo edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea?~~

- a) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean
- b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean
- c) Euskararen erabilera arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean
- d) Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen arteko Harremanei Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean

109. Zer kontratu-mota da enpresaburua hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioka entregatzera behartzen duena, kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe egindakoa, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien arabera egiten direlako entregak?

- a) Hornidura-kontratua
- b) Zerbitzu-kontratua
- c) Obra-kontratua
- d) Obra-emakidako kontratua

110. 3/1987 Foru Arauaren 65. artikulua xedatutakoaren arabera, zein da zuzena?

- a) Administrazio-xedapen orokor guztiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, besterik xedatzen ez bada
- b) Administrazio-xedapen orokor guztiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta 20 egunera jarriko dira indarrean, besterik xedatzen ez bada
- c) Administrazio-xedapen orokor guztiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta 6 hilabetera jarriko dira indarrean, besterik xedatzen ez bada
- d) Administrazio-xedapen orokor guztiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta 2 urtera jarriko dira indarrean, besterik xedatzen ez bada.

